

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

HONDARRIBIKO UDALA

«Emakumea Hondarribian» emakumearen alorrean ikertzeko bekaren oinarrien behin betiko onarpena.

Udalbatzak 2018ko ekainaren 7an egindako bilkuran, «Emakumea Hondarribian» Emakumearen Alorrean ikertzeko bekaren oinarriak onartu zituen.

Iragarkia 2018ko uztailaren 16an 136. zenbakia duen Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta jendaurrean 30 lanegunegun egon da, baita Udaleko Iragarki Oholean ere 2018-07-16tik 2018-08-29ra.

Jendaurreko epea bukatu eta alegaziorik aurkeztu ez denez, hasierako onespena jaso zuen akordioa behin betikotzat jotzen da.

Ondorioz, oinarriak honela idatzita geratuko dira:

Emakumearen alorrean ikertzeko bekaren oinarriak: «emakumea Hondarribian».

1. Xedea.

Hondarribiko Udalak, Hondarribian Emakumearen alorra ikertzeko ikerketa beka bat sortu du.

Ikerketa beka ezaguera eremu guztiak hartuko ditu bere baitan, eta Deialdi bakoitzak landu beharreko gai zehatza zehaztuko du.

– 2018ko deialdian ikerketa gaia «Emakumea eta itsasoa» izango da.

Udalak bakarrik beka emateko ardura izango du, eta onuradunak izango du ikerketa lana garatzeko kudeaketa eta ekintzak egiteko ardura.

2. Bekaren ezaugarriak.

2.1. Proiektua, azterlana eta memoria euskaraz burutuko dira.

2.2. Bekaren iraupena gehienez 12 hilabetekoa izango da, beka esleitzen den egunetik hasita.

2.3. Ikerketa-lanak originala eta argitaratu gabea izan behar du.

2.4. Beka hau emateko bi urtetik behin deialdi publikoa egingo da, eta bertan oinarri hauen xede den programarako baimendutako gastua finkatuko da. Beka hau gehienez 6.000 eurokoa izango da, eta dagokion aurrekontu partidari atxikiko zaio.

3. Eskatzaileak.

3.1. Beka honetarako aukera izango dute eskabidea aurkezterakoan 18tik 35 urtera badituzte.

3.2. Beka norbanakoek nahiz horretarako osatutako lantaldeek jaso ahal izango dute. Bigarren kasu horretan, ikerlanaren zuzendari arduradun bat izendatu beharko da.

AYUNTAMIENTO DE HONDARRIBIA

Aprobación definitiva de las bases para beca de investigación en el área de la mujer «La Mujer en Hondarribia».

El Ayuntamiento en sesión plenaria 7 de junio de 2018 aprobó las bases para la beca de investigación en el área de la mujer «La Mujer en Hondarribia».

El expediente ha sido sometido a información pública durante el plazo de 30 días hábiles mediante inserción de anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa num. 136 de 16 de julio de 2018, así como en el Tablón de Anuncios Municipal desde el 16-07-2018 al 29-08-2018.

Transcurrido el plazo de exposición pública sin que se hayan presentado alegaciones, ha quedado elevado a definitivo el acuerdo inicialmente adoptado.

En consecuencia, las bases quedan redactadas de la siguiente manera:

Bases para beca de investigación en el area de la mujer, «La Mujer en Hondarribia».

1. Objeto.

El Ayuntamiento de Hondarribia, con el objetivo de impulsar la investigación en el área de la Mujer en Hondarribia crea una beca de investigación.

El ámbito de investigación abarcará todas las áreas de conocimiento y cada Convocatoria definirá el tema concreto a trabajar.

– En la convocatoria de 2018, el tema de investigación será la «La mujer y el mar».

El Ayuntamiento asume únicamente el papel de otorgar la beca y será la persona beneficiaria la responsable de realizar las gestiones y acciones oportunas para llevar a cabo el desarrollo y el trabajo de investigación.

2. Características de la beca.

2.1. El proyecto, el trabajo de investigación y la memoria se realizarán en euskara.

2.2. La duración de la beca será como máximo de 12 meses, contados desde el día de adjudicación de la beca.

2.3. El trabajo de investigación debe ser original y no debe haberse publicado antes.

2.4. Para el otorgamiento de esta beca se realizará cada dos años una convocatoria pública en la que se fijara el gasto autorizado para el programa objeto de estas bases. El importe máximo de la beca será de 6.000,00 €, imputable a la correspondiente partida presupuestaria.

3. Solicitantes.

3.1. Podrán acceder a la beca aquellas personas, que en el momento de presentar la solicitud, tuvieran entre 18 y 35 años.

3.2. La beca podrá ser individual o podrá recibirla un equipo conformado para ese fin. En el segundo caso, se deberá nombrar un/a director/a responsable del trabajo de investigación.

3.3. Beka jaso ahal izateko ezinbestekoa da graduatu mailako titulua edo hortik gorakoa izatea. Taldeen kasuan, gutxienez erdiak bete beharko du baldintza hori.

3.4. Euskara maila: eskatzaileak Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 maila edo baliokidea, hau da EGA agiria, 3.HE eta abar, egiaztatu beharko du, dagokion titulu edo ziurtagiri bidez. Lantaldeen kasuan berdin, partaide guztiek frogatu beharko dute aipatutako gaitasuna.

Informazioa euskara gaitasuna egiaztatzeko titulu edo ziurtagiriei buruz:

– 47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikasketak ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzen salbuesteko dena.

– 187/2017 Dekretua, uztailaren 4koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako erreferentzia marko Bateratuko mailekin parekatzeko dekretua aldatzen duena.

4. Eskabideak eta dokumentazioa.

Interesatuak eskaria egiteko eskabide-orria BAZ (Biztanle Arreta Zerbitzurako Bulegoan, Kale Nagusia 20) edo udaleko web orrian (www.hondarribia.eus) eskuratu behar dute eta epe barruan aurkeztu, behar den bezala beteta eta ondorengo agiri hauekin batera:

4.1. Espediente akademiko zehaztua eta osatua. Lantaldeen kasuan partaide guztienak.

4.2. Udalak prestatutako eskabide-orriaren arabera, curriculum vitae, titulazioa eta merituen egiaztagiria. Lantaldeen kasuan, partaide guztienak.

4.3. Gaiaren azalpena eta lana zelan burutuko litzatekeen azaltzen duen proiektua, ahalik eta zehatzena (15 orrialdeko gehienez), ondokoak azalduz:

- Lanaren ikerketa esparrua.
- Aurrekariak eta gaiaren gaur egungo egoera.
- Ikertzailearen edo taldearen aurreko esperientzia.
- Helburuak.
- Materialak, baliabideak eta lan metodologia.
- Lana garatzeko kronograma.
- Aurreikusitako emaitzak eta horien interesa.
- Bestelako finantzabideak, baldin eta baleude.

4.4. Eskatzaileen nortasun agiriaren fotokopia bat.

4.5. Zerga alorreko obligazioetan egunean dagoela egiaztatzen duen agiria. Horretarako, ardurapeko adierazpena aurkeztu beharko du. Dokumentu horretan egiaztapenak ofizioz egiteko baimena eman ahalko zaio Hondarribiko Udalari. Hondarribiko Udalari baimena ematen ez bazaio, inprimaki honekin batera dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu eskatzaileak edota Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorral 13.7 artikuluan xedaturiko beste edozein baliabide erabilita.

4.6. Eskatzaile edo eskatzaile-taldeko kideen erantzukizunpeko adierazpena, zera adierazten duena: beka jasotzeko ez duela azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13.2 artikulua jarritako batere debekurik.

5. Eskaera aurkezteko lekua eta epea.

Eskaerak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN oinarri hauek argitaratzen direnetik hilabete beteko epean aurkeztu behar dira.

3.3. Para recibir la beca es imprescindible ser graduada/o o disponer titulación del mismo nivel o superior. En caso de ser un equipo, deben cumplir dicho requisito al menos la mitad de los miembros.

3.4. Competencia en euskera: el/la solicitante deberá acreditar el perfil lingüístico C1 del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas o equivalente: EGA, PL3, etc., por medio de título o diploma correspondiente. En caso de los equipos, todos sus miembros deberán acreditar la competencia arriba indicada.

Información relativa a los títulos y diplomas:

– Decreto 47/2012, de 3 de abril, de reconocimiento de los estudios oficiales realizados en euskera y de exención de la acreditación de títulos y certificaciones lingüísticas en euskera.

– Decreto 187/2017, de 4 de julio, por el que se modifica el Decreto de convalidación de títulos y certificados acreditativos de conocimientos de euskera, y equiparación con los niveles del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas.

4. Solicitudes y documentación.

Los/as Interesados/as deben recoger la hoja de solicitud en el BAZ (Oficina de Atención Ciudadana, Kale Nagusia 20) o en la página web (www.hondarribia.eus) y presentarla dentro del plazo, debidamente cumplimentada y adjuntándose los siguientes documentos:

4.1. Expediente académico detallado y completo. En el caso de los equipos, los expedientes de todos sus componentes.

4.2. Curriculum Vitae, titulación y certificados de méritos, según lo detallado en la hoja de solicitud exigida por el Ayuntamiento. En el caso de equipos, los de todos los componentes.

4.3. El proyecto que se va a desarrollar, en el que se deberá especificar el tema y el modo de desarrollar el proyecto de investigación, lo más detallado posible (15 páginas como máximo), explicando lo siguiente:

- Ámbito de trabajo de investigación.
- Antecedentes y situación actual del tema.
- Experiencias anteriores del/a investigador/a o el equipo.
- Objetivos.
- Materiales, recursos y metodología de trabajo.
- Cronograma de desarrollo del trabajo.
- Resultados previstos y su interés.
- Otras fuentes de financiación, si hubiere.

4.4. Fotocopia del documento de identidad del/a solicitante.

4.5. Documento acreditativo de hallarse al corriente de las obligaciones tributarias. El beneficiario o beneficiaria deberá cumplimentar la Declaración responsable y podrá autorizar al Ayuntamiento de Hondarribia a consultar si está al corriente de sus obligaciones fiscales y de Seguridad Social. En caso de no autorizar al Ayuntamiento de Hondarribia para obtener la información necesaria a tal efecto, el o la solicitante deberá aportar la documentación que acredite dicho cumplimiento utilizando cualquier medio previsto en el artículo 13.7 de la Ley 38/2003 General de Subvenciones.

4.6. Declaración responsable de no hallarse incurso o incurso en ninguna de las prohibiciones del artículo 13.2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, para la obtención de la beca, ninguna de las personas que integran la agrupación.

5. Lugar y plazo de presentación de la solicitud.

Las solicitudes deberán presentarse en el plazo de un mes desde la publicación de las presentes bases en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Eskaerak Gizarte Zerbitzuetako Departamentura bidaliko dira, eta BAZean aurkeztuko dira (Biztanleen Arreta Zerbitzuan): Kale Nagusia, 20, 20280 Hondarribia; telematikoki, Udalaren webgunearen bidez; edo Herri Administrazioen Lege Jaurbideari eta Guztientzako Jardunbideari buruzko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako beste edozein baliabidetan.

Udalak egiaztatzen badu eskaeragileak aurkeztutako dokumentazioa aurkeztutako proiektuarekiko osatu gabea dela, egutegi 10 egun emango ditu gabezia hori konpontzeko, eta epe hori igarota dokumentazioa osatzen ez bada eskaera artxibatu egingo da bestelako tramiterik egin gabe. Era berean, epez kanpo aurkeztutako eskaerak eta horiekin batera doan dokumentazioa berehala artxibatuko dira.

Beka eskaerarekin batera eskaeragileak adieraziko du deialdian eskatutako baldintza guztiak betetzen dituela eta oinarri hauek erabat onartzen dituela. Era berean, ondokoak azalduko ditu: eskabidean jasotako datu pertsonalak bere oniritziarekin jasoak direla, onartzen duela trataera automatizatua eman diezaietela eta Hondarribiko Udalak baimendutako fitxategietan sar ditzatela, eta onartzen duela datu horiek udal kudeaketarako bakarrik erabiltzea, eta beste administrazio publikoiei edo besteri laga edo jakinarazi ahal izango zaizkiela abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan (Datu Pertsonalak Babestekoan) aurreikusitakoa gertatzen denean.

6. Esleipen prozedura.

Beka hau Hondarribiko Alkateak, edo eskuordetzen duen organoak, esleituko du, epaimahaiaren proposamena jaso ondoren.

Proposamen hori epaimahaiak epaitutako merezimendu lehiaketa baten emaitza oinarritzat hartuta egingo da.

Erabakia aurkeztu diren guztiei jakinaraziko zaie.

Honako hauek osatuko dute epaimahaia:

Batzordeburua:

– Alkatea edo eskuordetzen duen udalkidea.

Batzordekideak:

– Herritarrak Batzordeburua.

– Aurkeztutako proiektuen esparruko 2 edo 3 ordezkari.

Idazkaria:

– Gizarte Zerbitzuen Teknikaria.

Horiez gain, epaimahaiak hala erabakiko balu, aurkeztutako gaien inguruko pertsona adituen laguntza eta aholkularitza eska dezake epaimahaiak.

Eskatzaileek aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, epaimahaiak informazio osagarria eskatu dezake edo/eta hautagai batzuk proiektua defendatzera dei ditzake.

Honako alderdi hauek hartuko dira aukeraketarako irizpide nagusitzat:

– Eskatzaileen espediente akademikoa eta curriculum (0-10 puntu).

– Ikerketa proiektuaren interesa, zuzentasun eta balio zientifikoa, originaltasuna eta bideragarritasuna (0-30 puntu).

– Hondarribiko Udal Artxiboaren edo/eta erabiliko duen fondeo erabilpena dakarren gaia (0-10 puntu).

Las solicitudes se dirigirán al Departamento de Servicios Sociales, presentándolas en persona en el BAZ (Biztanleen Arreta Zerbitzua): Kale Nagusia, 20, 20280 Hondarribia; telemáticamente a través de la web del ayuntamiento, o en cualquiera de los medios previstos en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Si el Ayuntamiento comprobara que la documentación presentada por el o la solicitante fuese incompleta o insuficiente respecto al proyecto presentado, concederá al mismo un plazo de 10 días naturales para subsanar la omisión o deficiencia, transcurrido el cual sin haber procedido a la subsanación, la solicitud se archivará sin más trámite. También serán archivadas, directamente, las solicitudes presentadas fuera de plazo y la documentación que acompañen a las mismas.

Con la presentación de la solicitud de beca, la persona solicitante declara que reúne todos los requisitos establecidos en la convocatoria y que acepta íntegramente estas bases. Así mismo, manifiesta que los Datos Personales contenidos en la instancia son recogidos bajo su consentimiento y que acepta que dichos datos sean objeto de tratamiento automatizado e incorporados a los diferentes ficheros debidamente autorizados del Ayuntamiento de Hondarribia y que autoriza a que el uso de dichos datos se restrinja exclusivamente a la gestión municipal, pudiendo procederse a su cesión o comunicación a otras Administraciones Públicas o terceros en los supuestos previstos en la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre de Protección de Datos de Carácter Personal.

6. Procedimiento de otorgamiento.

La beca será otorgada por el Alcalde de Hondarribia, u órgano en quien delegue, tras conocer la propuesta del jurado.

Dicha propuesta se realizará en base al resultado del concurso de méritos realizado por el jurado.

La resolución se notificará por escrito a todas las personas solicitantes.

El jurado estará formado por las siguientes personas:

Presidente:

– El Alcalde o concejal en quien delegue.

Vocales:

– Presidenta de la Comisión de Ciudadanos.

– 2 o 3 representantes expertos en el ámbito de investigación de la presente convocatoria.

Secretario/a:

– El Técnico/a de Servicios Sociales.

Además, el jurado tiene la facultad de solicitar la colaboración y asesoramiento de personas expertas en el ámbito al que se refiere la beca, siempre que lo considere oportuno.

Tras el análisis de la documentación presentada por los solicitantes, el jurado puede requerir información complementaria o convocar a algunos solicitantes para la defensa de su proyecto.

Criterios de selección:

– Expediente académico y Curriculum de las personas solicitantes (0-10 puntos).

– Interés, corrección y valor científico, originalidad y viabilidad del proyecto de investigación (0-30 puntos).

– Tema que conlleve la consulta del Archivo Municipal de Hondarribia y/o el fondo con el que cuenta (0-10 puntos).

Puntuaketa:

Eskatzailearen puntuazioa, epaimahaikide bakoitzaren puntuak gehitu eta batez bestekoa izango da. Epaimahaikide guztiek dute hitz-egiteko eta puntuazioa jartzeko eskubidea.

Puntu gehien duenari esleituko zaio beka eta horrek hartuko ez balu, hurrengoari proposatuko zaio. Hala ere, epaimahaiak bekarik ez emateko proposamena egin dezake, lanen kalitatea nahikoa ez dela uste badu.

7. Bekadunen betebeharrak.

7.1. Bekaren onarpena adieraztea eta sinatzea emakida jakinarazi eta 10 eguneko epean.

7.2. Lanaren garapenari buruz (egindakoa eta egiteko dagoena), aurkeztutako proiektuaren arabera txosten bat bidaltzea beka eman eta 6 hilabeteak igarotakoan.

7.3. Hondarribiko Udalaren esku egotea egindako lanen ohar, zirriborro, aurrerapen eta emaitzak.

7.4. Aurreikusitako planaren edo ikertaldearen osaketaren aldaketan berri ematea. Halakorik ezingo da egin Hondarribiko Udalaren eta Udako Euskal Unibertsitatearen baimenik gabe.

7.5. Bekaren amaieran memoria (ikerlanaren beraren azken erredakzioa) aurkeztea. Lan horren hiru ale entregatuko dira, tarte bikoitzez mekanografiaturik, koerlatiboki orrialdez-tuta eta koadernaturik, baita euskarri informatikoan ere.

7.6. Lanak 100 eta 300 orrialde arteko luzera izan beharko du, orrialdeko 30 lerroz eta lerroko 60 idazki zeinuz, grafikoak, argazkiak eta antzekoak dituzten orrialdeen kasuan izan ezik. Testua ez den elementu oro orrialdeetan zehar edo tokirik ez balego lanaren bukaeran, eranskin gisa, txertatuko da. Era horretako elementu grafiko bakoitzak behean bere azalpentxoia izan beharko du. Edozein kasutan, lanak gutxienez testuko 100 orrialderen baliokidea izan behar du. Eranskinetako orrialdeak ez dira kontuan hartuko puntu honetan zehaztutako gutxi-ekoak betetzeko.

7.7. Egileak 30 lerro inguruko laburpena erantsiko du, eta bertan memoriaren edukia eta deskribatzaileak emango ditu, euskaraz gain, gazteleraz, frantsesez eta ingelesez.

7.8. Egileak bekarako lana bukatutakoan, jendaurrean aurkeztu beharko du, horretarako Hondarribiko Udalarekin eguna eta ordua adostuta.

7.9. Ikerlanaren garapenaren txostena edo amaierako memoria entregatzeko azken epea betetzen ez bada edo epaimahaiaren iritziz nahikoa kalitatetik ez badu, justifikazio edo gainditu ezinezko arrazoirik gabe, oinarri hauen 8. puntuan jasotako penalizazioak ezarriko zaizkio irabazleari. Epaimahaiak erabakiko du emandako arrazoiak nahikoak diren ala ez.

8. Ordaintzeko era.

Ordainketa modu honetan egingo da, izapide administrati-boak burutu ondoren:

– Kopuru osoaren % 40, beka ematen den une berean, aurreordainketa moduan.

– Kopuru osoaren % 20a, beka ematen zaionetik 6 hilabetera, betiere Epaimahaiak beka irabazi duenak aurkeztutako txostena –ordu arte egindako lana eta falta zaiona jasotzen duena– onartzen badu, 7.2 puntuaren arabera.

– Gainontzeko % 40a, bekaren bukaeran, azken lana aurkeztu eta epaimahaiak onztat eman ondoren.

Lana amaituko ez balitz, oinarri hauetako 9. puntua (itzulketak eta zigorrak) ezarriko da.

Puntuación:

La puntuación lograda por cada solicitante será la media de la suma de puntos adjudicados por cada miembro del jurado. Todos los miembros del jurado tienen el derecho a opinar y adjudicar puntos.

Se le otorgará la beca al solicitante que obtenga la mayor puntuación. En caso de que renunciara, se le propondría al siguiente. De todas formas el jurado puede proponer declarar desierta la beca, si considera que la calidad de los proyectos presentados no es la suficiente.

7. Obligaciones de las/los becarios/os.

7.1. Comunicar y firmar la aceptación de la beca en el plazo de 10 días, a partir de la comunicación de la concesión.

7.2. Presentar un informe a los 6 meses de la concesión de la beca en el cual se refleje el desarrollo del trabajo de investigación (trabajo realizado hasta la fecha y lo que falta para su finalización).

7.3. Facilitar el acceso del Ayuntamiento de Hondarribia a las notas, borradores, trabajos previos y resultados del trabajo de investigación.

7.4. Comunicar cualquier cambio en el plan previsto o la composición del equipo de trabajo. No se admitirá ningún cambio de dicha índole sin el permiso del Ayuntamiento de Hondarribia.

7.5. Presentar el informe final (redacción final del trabajo de investigación). Se deben presentar 3 ejemplares del informe, mecanografiados a doble espacio, con paginación correlativa y encuadrada. También se debe presentar el trabajo en soporte informático.

7.6. La extensión de la memoria final deberá ser de entre 100 y 300 páginas con 30 líneas por página y 60 caracteres por línea, excepto en páginas con fotografías y gráficos. Todo elemento que no sea texto se incluirá en las páginas, y si no hubiera sitio se incluirá como apéndice al final de la memoria. Los elementos gráficos deberán llevar anotaciones al pie. De todas formas, la memoria deberá constar como mínimo de 100 páginas de texto. Los apéndices no contabilizarán para cumplir con el mínimo exigido.

7.7. El autor de la memoria deberá incluir un resumen de 30 líneas que recoja el contenido y los descriptores de la memoria, en euskara, castellano, francés e inglés.

7.8. El autor al finalizar el proyecto hará una presentación pública, para la cual acordarán la fecha y la hora con el Ayuntamiento de Hondarribia.

7.9. Si hubiera incumplimiento de plazo por parte del becario en la presentación del informe o de la memoria final, sin justificación suficiente o razón insalvable, se aplicarían las penalizaciones recogidas en el punto 8 de las bases. El jurado decidirá si la justificación presentada es suficiente.

8. Procedimiento de pago.

Tras la tramitación administrativa, el pago se efectuará de la siguiente manera:

– El 40 % de la cantidad total, en el momento de la concesión de la beca, a modo de anticipo.

– El otro 20 % de la cantidad total, a los 6 meses de la concesión de la beca, siempre que el tribunal apruebe el informe presentado por el ganador de la beca que recoja el trabajo realizado hasta la fecha y lo que falta para su conclusión, conforme al punto 7.2.

– El 40 % restante, al finalizar la beca, tras la presentación de la memoria final y ser aprobada por el tribunal.

En el caso de que no se finalizara el trabajo, se aplicará el punto 9 (devoluciones y sanciones) de estas bases.

9. Itzulketak eta zigorrak.

9.1. Ikerlanaren garapenaren txostena edo amaierako memoria entregatzeko azken epea bukatu baino lehen eta Udalak aurretiaz errekeritu gabe, bekadunak bere borondatez bekaren zenbatekoa itzultzen badu, beka jasotzaileak ordura arte jasotako zenbatekoa eta dagozkion berandutze interesak itzuli beharko ditu.

Udalak berandutze interesak kalkulatuko ditu, Diru-laguntzen Lege Orokorraren 38. artikuluan jasotakoari jarraituta.

9.2. Ikerlanaren garapenaren txostena edo amaierako memoria entregatzeko azken epea bukatuta Udalak errekeritu ondoren bekaren zenbatekoa itzultzen denean, beka-jasotzaileak ordura arte jasotako zenbatekoa itzultzeaz eta dagozkion berandutze interesak ordaintzeaz gain, ezarriko zaion zigorrari aurre egin beharko dio. Zigorra ordura arte jasotako diru-sariaren zenbatekoaren adinako isuna izango da. Bekaren zenbatekoa itzultzeko errekerimendua betiere interesdunari audientzia ostean eta, hala badagokio, itzulketa espedientea ireki eta gero egingo da.

10. Lanen jabetza.

Lanen jabea Hondarribiko Udala izango da. Udalak beraren zatitza gordetzen du ikerketak osoki edo/eta partzialki erreproduzitu, argitaratu eta plazaratzeko eskubidea, egokia iruditzen zaion komunikabidean, bere kabuz edo beste erakunderen baten hitzarmenez, egoki deritzonenean. Betiere, lanaren egilea edo egileak aipatu beharko ditu.

Sortutako materiala aurkeztu eta urte biko epean Udalak argitaratu ez badu, egileak edo egileek material hori erabili ahal izango du(te) egokien iruditzen zaio(e)na egiteko. Egileak edo egileek orduan, jasotako bekaren aipamena egin beharko du(te) (bekaren eta beka eman duen erakundearen eta laguntzailearen izenak jarriz) eta Udalari argitaratutako lanaren 20 ale eman beharko dizkio.

11. Gorabeherak.

Hondarribiko Udalak betebeharrak hauetan aurreikusi gabeko gorabeherak konpondu ahal izango ditu. Era berean, beka indarririk gabe utzi ahal izango dute, onuradunak betebeharrak hauetako eginbeharrekoak betetzeke lagako balitu(zte).

Deialdi honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar.

Hondarribia, 2018ko irailaren 5a.—Txomin Sagarzazu Ancisar, alkatea. (6050)

9. Devoluciones y sanciones.

9.1. En el caso de que la persona perceptora devuelva de forma voluntaria el importe de la beca, antes de la finalización del plazo de entrega del informe o de la memoria final y sin previo requerimiento del Ayuntamiento, el becado/a deberá devolver el principal abonado más los correspondientes intereses de demora.

El Ayuntamiento calculará los intereses de demora de acuerdo con lo previsto en el artículo 38 de la Ley General de Subvenciones.

9.2. Cuando el importe de la beca se devuelva tras requerimiento del Ayuntamiento y una vez finalizado el plazo de presentación del informe o de la memoria final, el becado/a deberá, además de reintegrar las cantidades percibidas y los intereses de demora correspondientes, hacer frente a la sanción con multa igual a la cantidad indebidamente obtenida que se le impondrá, previa audiencia al interesado y, en su caso, incoación de expediente de reintegro.

10. Propiedad de los trabajos.

El propietario del trabajo fruto de la beca será el Ayuntamiento de Hondarribia. El Ayuntamiento se reserva el derecho de reproducir o publicar parcialmente o en su totalidad el trabajo cuando lo crea oportuno y en el medio que considere, por su cuenta o en colaboración mediante acuerdo. Deberá mencionar siempre al autor o autores.

Si en el plazo de 2 años a partir de la presentación de la memoria final el Ayuntamiento no ha publicado el trabajo, el autor o autores podrán utilizar dicho material para lo que crean oportuno. En dicho caso el autor o autores deberán hacer mención de la beca recibida (mencionando el nombre de la beca, la entidad que lo adjudica y sus colaboradores) y darán 20 ejemplares del trabajo publicado al Ayuntamiento.

11. Interpretación.

El Ayuntamiento de Hondarribia podrá resolver cualquier duda que pudiera surgir de la interpretación de la presente convocatoria. Igualmente se acordará la rescisión de la beca si hubiera incumplimiento por parte de la persona/s beneficiarias.

La presentación de una solicitud para esta beca supone la aceptación de estas bases.

Hondarribia, a 5 de septiembre de 2018.—El alcalde, Txomin Sagarzazu Ancisar. (6050)